


SAMSUNG

# GT-I5700

## Erabiltzailearen eskuliburua

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

Baliteke eskuliburu honen edukia zure telefonoarekin erabat bat ez etortzea, instalatutako softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

SAMSUNG ELECTRON CS

Adostasun deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek aitortzen du, haren erantzukizunaren pean, gailu honek Europako Legebiltzarraren 99/05/CE direktiban idatzitakoarekin bat dator.

World Wide Web
http://www.samsungmobile.com

Printed in Korea
Code No.:GH68-24887A
Spanish. 11/2009. Rev. 1.0

# eskuliburuaren erabilera

Zure telefonoaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau.

## Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:

WARNING

Ohartarazpena: kalte egin diezazuketen edo beste norbaiti min eman diezaioketen egoerak

CAUTION

Kontuz: zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

Oharra: oharrak, erabilera-gomendioak eta informazio gehigarria

▶ Ikusi: lotutako informazioa duten orriak; esaterako: ▶ 12. or (“ikus 12. orrialdea” esan nahi du).

→ Ondoren: ekintza bat egiteko jarraitu behar duzun aukeren edo menuen ordena, adibidez: menuen moduan, sakatu: Mensajería → Mensaje nuevo ( Mensajería sakatu eta jarraian, Mensaje nuevo)

[ ] Kortxeteak: telefonoaren teklak; Adibidez: [ ] (pizteko tekla)

## Egile-eskubideei buruzko informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira:

- Gailu honek Linuxen oinarritutako Android plataforma erabiltzen du, berau Javascripten oinarritutako softwarearekin zabaldu daitekeena.
- Google, Android, Android Market, Google Talk, Google Mail eta Google Maps, Google, Inc-en marka komertzialak dira.
- YouTube, YouTube, LLC-en marka komertziala da. YouTube® logotipoa YouTube, LLC-en erregistratutako marka komertziala da.
- Bluetooth®, Bluetooth SIC, Inc-en marka komertzial erregistratua da, mundu osoan. Bluetooth QDID: B015432
- Wi-Fi®, Wi-Fi CERTIFIED logotipoa eta Wi-Fi logotipoa Wi-Fi Alliance-ren marka erregistratuak dira.
- DivX® , DivX, Inc.-en erregistratutako marka komertziala da eta honen erabilera lizentziapean egiten da.

CE0168

## DIVX BIDEORI BURUZ

DivX® DivX, Inc sortutako bideo digital formatua da. Gailu honek Divx bideoa erreproduzitzen ditu. Bisitatu www.divx.com fitxategiak Divx bideo bihurtzeko informazioa eta tresnak lortzeko.

## DIVX VIDEO-ON-DEMAND ZERBITZUARI BURUZ

DivX®-ek egiaztatutako gailu hau erregistratu egin behar da DivX VOD (Video-on-Demand) edukiak erreproduzitzeko. Erregistro kodea sortzeko, jarri ezazu DivX VOD saila gailuaren konfigurazio menuan. Sartu vod.divx.com gunean kodea erregistro prozesua burutzeko eta DivX VODi buruz informazioa gehiago lortzeko.

DivX agiria 720x480 tamainako DivX® bideoak erreproduzitzeko (LCD tamaina: 320x480).



# edukia

erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa ........ 2
Segurtasunari buruzko oharrak....................... 2
Segurtasun-neurriak .................................. 5
Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua...... 8

telefono mugikorraren sarrera.................. 14
Bilgarria kentzea ........................................ 14
Telefonoaren diseinua................................ 15
Teklak .................................................... 16
Ikonoak ................................................... 17

gailuarekin lanean hasi ..................... 19
telefono mugikorra prestatzea
eta instalatzea ........................................ 19
Telefonoa piztea eta itzaltzea .................. 24
Ukipen pantaila erabiltzea.......................... 26
Hasierako pantailaren aurkezpena ............ 27
Aplikazioetara sartzea ............................ 28

Gailua pertsonalizatzea ............................... 29
Testua idaztea ........................................ 31
Android Market gunetik aplikazioak deskargatzea .......................... 32
Webetik fitxategiak deskargatzea ............. 34
Datuen sinkronizazioa ................................ 35

komunikazioa ...................................... 36
Deiak ................................................. 36
Testu eta multimedia mezuak..................... 40
Google Mail™ ......................................... 41
Mezu elektronikoak ................................ 43
Google Talk™ ......................................... 45

multimedia ......................................... 46
Fitxategi formatu bateragarriak ................ 46
Musika .................................................. 47
Argazki eta bideo kamera .......................... 49
Galeria ................................................. 51
YouTube™ ............................................ 53
Java ME aplikazioak................................. 54

produktibitate pertsonala ...................... 56
Kontaktuak ............................................ 56
Egutegia ............................................... 59

weba ................................................. 62
Nabigatzailea ......................................... 62
Googlen bilatu ........................................ 65
Google Maps™ ....................................... 65

tresnak ............................................... 67
Bluetootha ............................................ 67
Wi-Fia .................................................. 69
Alarma .................................................. 70
Kalkulagailua ......................................... 71

edukia

doikuntzak ............................................. 72
Haririk gabeko kontrolak ............................ 72
Deien ezarpenak ........................................ 74
Soinua eta pantaila ................................... 75
Datuen sinkronizazioa................................. 77
Segurtasuna eta kokapena ......................... 77
Aplikazioak ............................................... 78
Telefonoaren eta SD txartelaren biltegiratzea 79
Data eta ordua .......................................... 79
Hizkuntza eta testua .................................. 80
Telefonoari buruz ...................................... 82

arazoen konponketa ................................ a

aurkibidea ............................................... f

# erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Bete neurri hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta telefono mugikorraren errendimendua ahalik eta handiena izatea bermatzeko.

## Segurtasunari buruzko oharrak

### Ez utzi telefonoa haurren eta etxeko animalien eskura

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskura. Pieza txikiek asfixia edo zauri larriak eragin ditzakete irentsiz gero.

### Babestu entzumena



Entzungailuak ozenegi jartzeak entzumena kaltetu dezake. Musika entzuteko edo elkarrizketarako beharrezkoa den gutxieneko bolumen-konfigurazioa erabili.

.

## Kontuz instalatu telefono mugikorrak eta gainerako tresnak

Ziurtatu telefono mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu ziurrean muntatuta daudela. Saiatu ez jartzen telefonoa eta osagarriak airbag-a zabaltzen den eremuan edo hortik hurbil. Haririk gabeko tresnak behar bezala instalatuta ez badaude eta airbag-a puztu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

## Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta bereziki telefonoarentzat diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkiokete telefonoari.
- Inoiz ez bota bateriak sutara. Bota bateriak tokian tokiko arauen arabera.
- Ez jarri bateriak edo telefonoak beroa sortzen duten gailuen gainean, hala nola mikrouhin labeen, berogailuen edo erradiadoreen gainean edo barruan. Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Ez jarri bateria atmosfera-presio handia dagoen lekuetan; barneko zirkuitu elektronikoak kaltetu edo gehiegi berotu daiteke.

## Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia telefono mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Techn[redacted]ogy Research ikerketa-talde independentearen gomen[redacted]ioei jarraituz.

Telefonoak taupada-markagailu batean edo beste gailu medikoren batean interferentziak sortzen dituen zalantza baduzu, itzali telefonoa berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo gailu medikoaren fabrikatzailearekin laguntza eskatzeko.

## Itzali telefonoa lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

Ez erabili telefonoa gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere. Itzali telefonoa ohar-jarraibideek edo –seinaleek hala adierazten dutenean. Telefonoak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaiak eta produktu kimikoak gordetzeko eremuetan eta leherketa-eremuetan edo haien inguruan. Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik, telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

## Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Telefonoa erabiltzean, eutsi eskua erlaxatuta duzula, kontuz sakatu teklak, erabili tekla gutxiago sakatzeko teklak (adibidez, txantiloiak eta testu prediktiboa) eta maiz hartu atseden.

## Ez erabili telefonoa pantaila hautsita edo apurtuta badago

Apurtutako kristalak zauriak sor ditzake eskuetan edo aurpegian. Eroan telefonoa Samsung harreta zerbitzura pantaila aldatzeko. Erabilera desegokiak sortutako kalteak bermearen amaiera ekar dezake.

CAUTION

# Segurtasun-neurriak

## Arretaz gidatu beti

Ez erabili telefonoa gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean mugikorra erabiltzea debekatzen duten arau guztiak. Ahal duzun guztietan, erabili esku libreko osagarriak segurtasun handiagoa izateko.

## Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrak erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

## Erabili beti Samsung-ek baimendutako osagarriak

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure telefonoa kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke

## Itzali telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Telefonoak interferentziak sor ditzake ospitaleetako osasuna zaintzeko zentroetako tresna medikoetan. Bete araudiak, argitaratutako ohartarazpenak eta pertsonal medikoak emandako jarraibideak.

## Itzali telefonoa edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Telefonoak interferentziak sor ditzake hegazkinaren tresnerian. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

## Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak tenperatura hotzegiak edo beroegiak dauden lekuetan (0 ºC/32 ºF-tik beherakoak edo 45 ºC/115 ºF-tik gorakoak). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

## Kontuz eta arretaz erabili telefonoa

- Ez desmuntatu telefonoa deskarga elektrikoa jasan dezakezu eta.
- Telefonoa ez da busti behar; likidoek kalte larriak eragin ditzakete. Ez ukitu telefonoa eskuak bustita dituzula. Urak eragindako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.

- Ez erabili edo gorde telefonoa eremu zikinetan edo hautsa dagoen eremuetan, pieza mugikorrak kaltetu ez daitezen.
- Gailu elektroniko konplexua da telefonoa; beraz, babestu ezazu kolpeetatik eta manipulazio zakarretatik, kalte larririk ez eragiteko.
- Ez margoztu telefonoa, honek mugitzen diren atalak blokeatu eta telefonoa behar bezala ez ibiltzea ekar dezake.
- Ez erabili telefonoaren kameraren flasha edo argia haurren edo animalien begietatik hurbil.
- Eremu magnetikoen eraginpean jarriz gero, telefonoa kaltetu egin daiteke Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi telefonoa eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

## Saihestu beste gailu elektronikoekin interferentziak izatea

Telefonoak irrati-maiztasuneko seinaleak igortzen ditu, eta horiek interferentziak eragin ditzakete babestu gabeko edo gaizki babestutako gailuetan, esaterako, taupada-markagailuetan, audifonoetan, etxeetako gailu medikoetan edo etxeetako edo ibilgailuetako beste edozein gailu elektronikotan. Jarri harremanetan gailu elektronikoen fabrikatzailearekin interferentzia-arazoak konpontzeko.

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

## Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

### Telefonoa ohiko posizioan erabili

Saiatu telefonoaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

### Langile adituei soilik utzi telefonoaren mantentze-lanak egiten

Adituak ez diren langileek telefonoaren mantentze-lanak eginez gero, telefonoa kaltetu daiteke, eta bermea bertan behera utzi.

### Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetez baino gehiagoz; gainkargak iraupena murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabili gabeko bateriak deskargatu egingo dira, eta berriro kargatu behar dira erabili aurretik.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatutako helburuko bakarrik.

### Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu txartelik telefonoa informazioa transferitzen edo erabiltzen ari dela; telefonoko edo txarteleko datuak galdu edo kaltetu daitezke.

- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelen bizitza erabilgarria murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikin badago, garbitu zapi leun batekin.

## Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait leku edo egoeratan telefonotik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

## Absortzio espezifikoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu telefonoak. Arau horiek gehieneko esposizio-maila (absortzio espezifikoaren tasa edo SAR deitua) hau da, giza ehunaren kg bakoitzeko 2,0 watt gainditzen duten telefono mugikorren salmenta saihesten dute.

Proba-prozesuan, telefono-modelo honetarako gehienezko SAR balioa 0,607 watt/kg izan zen. Ohiko erabileran, gehienezko balioa baino dezente beherago egon ohi da SAR erreala; izan ere, hurbilen dagoen estaziora seinaleak igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatua da telefonoa.

Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituenez, telefonoak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia.

Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du telefonoak betetzen duela telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARi eta horren inguruko EBko arauei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung-en telefonia mugikorraren web gunea.

## Produktua behar bezala botatzea

(Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europako Batasunean eta hondakinak bereizita jasotzeko sistemak dituzten beste herrialde europarretan aplikatu beharrekoa).

Produktuan edo hari buruzko liburuxketan marka hau agertzeak esan nahi du gailuaren bizitza erabilgarria amaitu ondoren ez dela etxeko hondakin arruntekin bota behar. Hondakinak kontrolik gabe ezabatzeagatik gizakien osasunean eta ingurumenean kalterik ez egiteko, bereizi produktu hau beste hondakinetatik, eta birziklatu dagokion bezala, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria sustatzeko.

Erabilera arrunterako erabiltzen dutenek, produktua segurtasunez eta ingurumenari kalterik egin gabe birziklatzeko artikulu hau nora eta nola eraman behar duten jakiteko, erosi zioten txikizkako saltzailearekin edo tokiko gobernuko bulegoarekin jarri behar dute harremanetan.

Negozioan erabiltzen dutenek hornitzailearekin jarri behar dira harremanetan, eta erosketa-kontratuaren baldintzak berrikusi. Produktu hau ez da hondakin komertzialekin nahasi behar botatzen denean.

## Gailu honen bateriak behar bezala botatzea



( Europako Batasunean eta bateriak bereizita jasotzeko sistemak dituzten beste herrialde europarretan aplikatu beharrekoa)

Baterian edo hari buruzko liburuxketan marka hau agertzeak esan nahi du gailuaren bizitza erabilgarria amaitu ondoren ez dela etxeko hondakin arruntekin bota behar. Hg, Cd edo Pb kimika sinboloak agertzeak esan nahi dubateriak Europar Batasuneko 2006/66 zuzentarauak ezartzen duena baino merkurio,kadmio eta berun kopuru handiagoa duela. Bateriak egoki zokoratu ezean, substantzia horiek ingurugiroa kaltetu edo kalte pertsonalak eragin litzakete.

Baliabide naturalak babesteko eta birziklapena sustatzeko, bereizi itzazu bateriak eta gainontzeko hondarra. Birzikla itzazu bateriak dohainik batzeko tokian tokiko sistemaren bidez.

## Erantzukizun-salbuespenerako klausula

Gailu honen bidez eskura dauden zerbitzu eta edukien zati bat hirugarrenen jabetza dira eta egilearen eskubide, patente, marka erregistratu edota jabetza intelektualaren legeek babesten dituzte. Edukiok eta zerbitzuok erabilera pertsonalerako hornitzen dira, eta ez, ordea, erabilera komertzialerako. Edukia eta zerbitzuak ezin izango dira erabili, edukiaren jabeak edo zerbitzuen hornitzaileak horretarako baimena eman ez badu.

Edukien jabeak edo aplikatzeko zerbitzuen hornitzaileak beren-beregi adierazi gabe gailu honen bidez eskura dauden eduki eta zerbitzuak ezin dira, inolaz ere, argitaratu, aldatu, kopiatu, berrargitaratu, igorri, itzuli, saldu eta ezin izango dira eratorritako lanak sortu ezta banatu ere.

EDUKIA ETA HIRUGARRENEN ZERBITZUAK BEREN HORRETAN HORNITZEN DIRA. SAMSUNG-EK EZ DITU BERMATZEN EDUKIAK, EZTA HORNITUTAKO ZERBITZUAK ERE, EZ PROPIO EZ INPLIZITUKI, EZELANGO HELBURUTARAKO. SAMSUNG-EK UKO EGITEN DIE EDOZELANGO BERME INPLIZITUEI. BERME HAUEN BARRUAN DAUDE KOMERTZIALGARRITASUNERAKO BERMEA ETA HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNA..

SAMSUNG-EK EZ DITU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ESKURA JARTZEN DIREN EDUKI ETA ZERBITZUEN EGIAZKOTASUNA, BALIOA, ERREPRODUZIOA, LEGEZKOTASUNA EDO OSOTASUNAERA BEREAN, SAMSUNG EZ DA IZANGO, INOLAZ ERE ETA ARDURAGABEKERIA BARNE DAGOELA, HURRENGOEN ERANTZULEA: ZUZENEKO KALTEAK, ZEHARREKOAK, BEREZIAK EDO ONDORIOZTATUAK, ABOKATUEN ORDAINSARIAK, EMANDAKO INFORMAZIOTIK ONDORIOZTATUTAKO EDO INFORMAZIOAREKIN ERLAZIONATURIKO KALTEAK, NAHIZ ETA KALTE HAUEK GUZTIAK ERATORRI ZUK EDO HIRUGARREN BATEK EDUKIAK EDO ZERBITZUAK ERABILTZETIK (SAMSUNG-EK KALTE HAUEK GERTATZEAREN AUKERA ONARTZEN BADU ERE).

Hirugarrenen zerbitzuak edozein momentutan bukatu edo eten egin daitezke. Samsung-ek ez du eskaintzen eduki edo zerbitzu bat erabiltzeko denborarako bermerik. Edukia eta zerbitzuak hirugarrenek hornitzen dituzte sare eta transmisiorako instalakuntzaren bidez eta Samsung-ek ez du hauen gaineko kontrolik. Klausula honen orokortasuna murriztu gabe, Samsung-ek uko egiten dio, espresuki, gailu honen bidez eskura jartzen diren eduki edo zerbitzuen eteteari edo bertan behera uzteari.

Samsung-ek ez du bere gain hartzen zerbitzuekin edo edukiekin erlazionaturiko bezeroarenganako arreta. Zerbitzu edo edukien gaineko galdera eta eskabide oro zerbitzuen eta edukien hornitzaileei bidali behar zaie zuzenean.

# Telefono mugikorraren sarrera

Atal honetan, telefonoaren diseinuari, teklei, pantailari eta ikonoei buruzko informazioa ematen da.



## Bilgarria kentzea

Egiaztatu produktuaren kaxak elementu hauek dituela:

- Telefono mugikorra
- Bateria
- Bidaiarako egokigailua (kargagailua)
- Erabiltzailearen eskuliburua

- Telefonoaren elementuak aldatu egin daitezke zure lurraldean eskura dauden softwarearen eta osagarrien arabera, edo zure zerbitzu-hornitzaileak eskaintzen duenaren arabera. Hainbat osagarri eskura ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.
- Honekin batera datozen elementuak zure telefonorako egokienak dira.

# Telefonoaren diseinua

Telefonoaren aurrealdean tekla eta funtzio hauek daude:




Telefonoaren atzealdean tekla eta funtzio hauek daude:



# Teklak

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Menua | Uneko pantailan aukera zerrenda bistaratzeko |
| Nabigazioa | Aplikazioetatik edo menu aukeretatik mugitzeko |
| Baieztatu | Aukera edo sarrera baieztatzeko |
| Atzera | Aurreko pantailara bueltatzeko |
| Google bilaketa | Google bilaketara sartzeko |
| Hasiera | Hasiera pantailara joateko edo programen zerrenda irekitzeko (luze sakatu) |
| Markatzeko | Dei bat egin edo erantzuteko; modu inaktiboan, markatu, galdutako edo jasotako azken deiak berreskuratzeko |
| Pizteko | Telefonoa pizteko (luze sakatu);) |
| Bolumena | Telefonoaren bolumena doitzeko |

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| | Blokeoa | Pantaila itzaltzeko eta Ukipen pantaila blokeatzeko; edo desblokeatzekol (luze sakatu) |
| | Kamera | Kamera pizteko (luze sakatu); kamera moduan, argazki bat atera edo bideo bat grabatzeko |

# Ikonoak

Ezagutu itzazu pantailan agertzen diren ikono

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Seinalearen intentsitatea |
| | GPRS sarea konektatuta |
| | EDGE sarea konektatuta |
| | UMTS sarea konektatuta |
| | Ibiltaritza (ohiko zerbitzu gunetik kanpo) |
| | GPSa aktibatuta |
| | Egoera ikono gehiago daude (sakatu ikonoa ikusteko) |
| | Ahots-deia abian da |

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Dei galdua |
| | Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta |
| | PC batekin konektatuta |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | Bluetooth gailua konektatuta |
| | Wi-Fia aktibatuta Webarekin sinkronizatuta |
| | SIM edo USIM txartelik gabe |
| | Testu mezu (SMS) edo multimedia MMS mezu berria. |
| | Mezu elektroniko berria |

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Ahots-posta mezu berria |
| | Berehalako mezu berria |
| | Isilik profila aktibatuta |
| | Musika erreproduzigailua martxan |
| | Haririk gabeko funtzioak desaktibatuta |
| | Bateriaren karga maila |
| | Alarma aktibatuta |
| **10:00** | Uneko ordua |

# gailuarekin lanean hasi

Hasteko, instalatu eta konfiguratu zure telefono mugikorra, eta
erabili lehen aldiz.

## Telefono mugikorra instalatzea eta konfiguratzea

Hasteko, instalatu eta konfiguratu zure telefono mugikorra, eta erabili lehen aldiz.

### SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea

Telefonia mugikorreko zerbitzu batean izena ematean, abonatuaren identifikazio-modulua edo SIM txartela jasoko duzu. Hor, izen-emateari buruzko informazioa duzu, adibidez, identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) edo hautazko zerbitzuak.

UMTS zerbitzuak erabiltzeko, USIM txartela erosi dezakezu (Abonatuaren mundu-mailako identifikazio modulua).

SIM edo USIM txartela eta bateria sartzeko:

1. Kendu bateriaren tapa.



Telefonoa piztuta badago, itzali.
►. 24 orri

2. SIM edo USIM txartela sartu.



- Jarri SIM txartela telefonoan, urre koloreko kontaktuak behera begira direla.
- SIM txartela sartu gabe, sarerik gabeko zerbitzuak eta telefonoaren menu batzuk erabil ditzakezu.

3. Sartu bateria.



4. Jarri berriro bateriaren tapa.



## Bateria kargatzea

Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

1. Ireki telefonoaren alboko funtzio anitzeko hartunearen estalkia.
2. Konektatu bidaiarako kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hartunera.



Triangelua gorantz




Egokigailua behar bezala konektatzen ez baduzu, telefonoak kalte larriak jasan ditzake. Bermeak ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

3. Konektatu bidaiarako egokigailuaren beste muturra korronte-hartunera.
4. Bateria osorik kargatuta dagoenean, (ikonoa mugitzen ez denean ), deskonektatu bidaiarako egokigailua elikadura-iturritik.
5. Deskonektatu telefonoaren bidaiarako egokigailua.
6. Itxi funtzio anitzeko hartunearen estalkia.

### Bateria baxuaren adierazleari buruz

Bateria-maila baxua duenean, ohar-tonu bat egiten du telefonoak, eta bateria baxu dagoela adierazten duen mezu bat bistaratzen da. Gainera, bateriaren ikonoa hutsik eta keinuka agertzen da. Bateria-maila telefonoak funtzionatzeko baxuegia bada, itzali egingo da automatikoki. Kargatu bateria telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

## Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)

Multimedia-fitxategi gehiago biltegiratzeko, memoria-txartela sartu behar duzu.32 GB arteko microSD™ edo microSDHC™ memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).

> Txartela ordenagailuan formateatzeak bateraezintasuna sor dezake. Telefonoan baino ez eman formatua txartelari.

1. Kendu bateriaren tapa.

2. Etiketa beherantz duela memoria-txartela sartu.



3. Sakatu txartela lekuan finkatuta geratu arte.

4. Jarri berriz bateriaren tapa.

Memoria-txartela kentzea

Memoria-txartela ateratzeko, poliki sakatu telefonotik askatu arte, orduan kendu txartela zirrikitutik.

1. Ireki Aplikazioen zerrenda (▶. 28 orri) eta hautatu **Ajustes** → **Almacenamiento del teléfono y de la tarjeta SD** → **Retirar tarjeta SD en Tarjeta SD externa**.
2. Kendu bateriaren tapa.
3. Txartela poliki sakatu telefonotik askatu arte.
4. Txarteletik tiratu memoria-txarteleko zirrikitutik kentzeko.
5. Kendu memoria-txartela.

## Eskumuturrerako zinta jartzea (hautazkoa)

1. Kendu bateriaren tapa.
2. Zirrikitutik pasatu zinta eta koska txikian lotu.



3. Jarri berriz bateriaren tapa.

## Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko, luze sakatu [ ]. Gailua automatikoki konektatuko da telefonia mugikorraren sarera.

Datu-konexioa ordaindu beharko duzu, eta telefono honek aurredefinituta dauka Googleko web zerbitzarirako konexioa.

Telefonoa itzaltzeko:

1. Luze sakatu [ ].
2. Hautatu **Apagar** → **OK**.

## Ukitzeko pantaila eta teklak blokeatzea edo desblokeatzea

Ukitzeko pantaila eta teklak edozein unetan blokeatu daitezke, nahi ez duzun operazioa ekiditeko. Blokeatzeko, sakatu [🔒]. Desblokeatzeko luze sakatu [🔒].

Desblokeatzeko patroi bat definitu dezakezu baimendu gabeko pertsonek telefonoa desblokeatu eta erabili ez ditzaten. ► p. 30

## Haririk gabeko funtzioak desaktibatzea

Telefonoaren haririk gabeko funtzioak desaktibatzen dituzunean, sareko zerbitzurik behar ez duten funtzioak erabil ditzakezu haririk gabeko gailuak debekatuta dauden tokietan (hegazkinak eta ospitaleak).

Haririk gabeko funtzioak desaktibatzeko luze sakatu [ ] eta hautatu **Modo de vuelo**.

Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden tokietan zaudela publikatutako iragarkiak eta pertsonal baimenduaren aginduak errespetatu.

## Ukitzeko pantaila erabiltzea

Telefonoaren ukitzeko pantailak elementuak aukeratzeko edo funtzioak erraz egiteko aukera ematen du. Ukitzeko pantaila erabiltzeko oinarrizko funtzioak ikasi.

> Ukitzeko pantaila behar bezala erabiltzeko, telefonoa erabili aurretik pantaila-babeslea kendu.

- Sakatu ikono bat menu bat irekitzeko edo aplikazio bat hasteko.



- Lerratu behatza gora edo behera zerrenda bertikaletan mugitzeko.



- Lerratu behatza ezkerrera edo eskuinera zerrenda horizontaletan mugitzeko.



# Hasierako pantailaren aurkezpena

Telefonoa pizterakoan, hasierako pantaila agertzen da. Pantaila honetatik, informaziora eta funtzio batzuetara sar zaitezke.




* Hemen ikusten duzuna eta zure telefonokoa ez dute zertan berdinak izan behar.

## Hasierako pantailatik mugitzea

Lerratu behatza ezkerrera edo eskuinera hasierako pantailaren alde ezkutua ikusteko.

## Hasierako pantailan elementuak gehitzea

Hasierako pantaila pertsonalizatu dezakezu lasterbideak edo aplikazio, widget eta karpetetan elementuak gehituz. Hasierako pantailan elementuak gehitzeko:

1. Sakatu [ ] eta hautatu **Añadir**.
2. Elementuaren kategoria hautatu → **un elemento**:
   - **Accesos directos**: elementuetara lasterbideak gehitzeko (aplikazioak, gogokoenak eta kontaktuak).
   - **Widgets**: erloju analogikoa, egutegia eta erreproduzitzailea bezalako widgetak gehitzeko.

- **Carpetas**: kontaktuentzako karpeta berri bat sortu edo beste bat gehitzeko.
- **Fondos** de **pantalla**: atzekaldeko irudia konfiguratzeko.

## Hasierako pantailan elementuak mugitzea

1. Luze sakatu mugitu beharreko elementua.
2. Elementua handitzen denean lerratu eraman nahi duzun tokira.

## Hasierako pantailan elementuak kentzea

1. Luze sakatu kendu beharreko elementua.
   Elementua handitzen denean ete aplikazioen fitxako ikonoa ordezkatzeko , ikonoa agertzen da; honek paperontziak aplikazio fitxa ordezkatu duela adierazten du.
2. Lerratu elementua paperontzira.
3. Elementua eta paperontzia gorriz agertzen direnean, askatu elementua.

## Sareko informazioa eta oharrak ikustea

Sareko informazioa eta oharrak ikusteko lerratu egoera barra beherantz. Oharren zerrenda ezabatzeko, hautatu **Borrar notificaciones**.

Zerrenda ezkutatzeko, lerratu zerrendako behealdea gorantza.

# Aplikazioetara sartzea

Gailuaren aplikazioetara sartzeko:

1. Hasierako pantailan, lerratu gorantza aplikazioen zerrenda irekitzeko.

2. Hautatu nahi duzun abiatu nahi duzun aplikazioa.

- Googleko aplikazioak erabiltzen dituzunean, Google kontu bat izan behar duzu. Konturik ez baduzu erregistratu sortzeko, **Crear** sakatu konfigurazio lehen pantailan.
- Aplikazioa luze sakatuz gero, hasierako pantailara gehituko da.

3. Sakatu [ ] aurreko pantailara bueltatzeko; sakatu [ ] hasierako pantailara joateko.

Duela gutxi erabilitako aplikazioetara sartzeko:

1. Luze sakatu [ ] duela gutxi erabili dituzun aplikazioen zerrenda irekitzeko.
2. Hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.

## Telefonoa pertsonalizatzea

Pertsonalizatu telefonoa zure lehenespenen arabera, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

### Tonuen bidezko markatzea piztea edo itzaltzea

Hasierako pantailan, ireki aplikazioen zerrenda eta hautatu **Ajustes** → **Sonido y pantalla** → **Selección audible**.

### Doinuen bolumena doitzea

Hasierako pantailan, sakatu bolumen tekla gorantz edo beherantz doinuen bolumena doitzeko.

## Profil isila jartzea edo kentzea.

Hasierako pantailan, luze sakatu [ ] eta hautatu **Modo Silencio** gailua isilarazteko.

Profil isila desaktibatzeko, prozedura berdina errepikatu.

## Dei tonua aldatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Sonido y pantalla** → **Melodía del teléfono**.
2. Hautatu doinu bat eta aukeratu **Aceptar**.

## Leihoen aldaketarako animazioa aktibatzea

Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Sonido y pantalla** → **Animación.**

## Desblokeorako patroia konfiguratzea

Desblokeorako patroia konfiguratu dezakezu nahi ez duzun pertsonek zuk jakin gabe telefonoa erabili ez dezaten.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Seguridad y ubicación** → **Definir patrón de desbloqueo**.
2. Argibideak eta adibideak pantailan kontsultatu eta hautatu **Siguiente** (beharrezkoa bada).
3. Patroia atzamarrarekin margoztu gutxienez lau puntu konektatuz.

4. Aukeratu **Continuar**.

5. Berriz margoztu patroia konfirmatzeko.

6. Aukeratu **Confirmar**.

Behin patroia margoztuta, gailuak pizten duzun bakoitzean eskatuko dizu. Ez baduzu patroia eskatzea nahi, **Requiere patrón** egiaztaze laukitxoa desmarkatu**, Seguridad y ubicación** aukeran.

## Testua idaztea

Telefonoaren ukipen pantaila erabilita, testua idatzi eta mezuak eta kontaktuak sortu daitezke.

### Testu idaztea Android teklatua erabiliz

Testua idaztekoa sakatzen duzunean, Android teklatua agertzen da pantailaren behealdean. Testua idatzi teklatu alfanumerikoa erabilita.

Ikono hauek ere erabil daitezke:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
| | Maiuskula eta minuskularen artea aldatzeko; sakatu maiuskulaz idazteko (puntu berde bat piztuko da) |
| | Karaktereak ezabatzeko eta sartzeko eremua ezabatzeko (luze sakatu) |
| ?123 ABC | Zenbakien modutik, ikur eta ABC modura aldatzeko |
| | Tartea sartzeko |

- Android teklatua ezkutatzeko, sakatu [ ].
- Luze sakatu ?123 edo ABC eta hautatu **Ajustes de teclado Android** aldatzeko teklatuaren konfigurazioa.
- Teklatua aldatzeko aukeretan **Teclado Samsung** eta Webetik deskargatutako beste batzuk ere badaude. Luze sakatu ?123 edb ABC eta hautatu **Mét entr** → teklatu mota bat.
- Bokal baten aldaketa bat aukeratzeko, luze sakatu bokala.

## Testua kopiatzea eta itsastea

Testu idazten duzunean, kopiatu eta itsatsi funtzio erabil dezakezu testu beste aplikazioetan erabiltzeko.

1. Luze sakatu testua idazteko eremua.
2. Hautatu **Seleccionar texto**.
3. Lerratu atzamarra aukeratu nahi duzun testutik.
4. Luze sakatu aukeratutako testua.
5. Hautatu **Copiar** testua arbelean kopiatzeko.
6. Beste aplikazioan luze sakatu testua idazteko eremua
7. Hautatu **Pegar** testua eremuan txertatzeko.

## Aplikazioak deskargatu Android Market gunetik

Android plataformaren arabera, gailuko aplikazioak handitu daitezke aplikazio gehigarriak instalatuz. Android Marketek joko eta aplikazio mugikorrak erosteko aukera erraza eta arina eskaintzen du.

Deskargatutako aplikazioen erabiltzaile fitxategiak moviNAND™memorian gordeko dira. Fitxategiok SD memoria-txartelean gordetzeko, ordenagailuarekin konektatu eta moviNAND memoriatik SD memoria-txartelera kopiatu.

## Aplikazioak instalatzea

1. Hasierako pantailan, ireki aplikazioen zerrenda eta hautatu **Market**.
2. Hautatu **Aceptar** agertzen direnean.
3. Hautatu elementu kategoria → elementu bat.
4. Hautatu **Instalar** (dohainezkoen kasuan) edo **Comprar**.
5. **Instalar** aukeratzen baduzu automatikoki hasiko da deskargatzen.
6. **Comprar** aukeratzen baduzu, kreditu txartelaren informazioa beharko duzu. Jarraitu pantailako argibideak.

## Aplikazioak desinstalatzea

1. Android Market guneko hasierako pantailan, sakatu [ ] → **Mis descargas**.
2. Kendu nahi duzun elementua hautatu.
3. Hautatu **Desinstalar** → **Aceptar**.

## Fitxategiak Webetik deskargatzea

Fitxategiak edo aplikazioak webetik deskargatzen dituzunean, telefonoak memoria-txartelean gordetzen ditu. Fitxategi bateragarrien formatuak baieztatzeko ikusi "Formatos de archivo compatibles."

CAUTION

Webetik deskargatutako fitxategiek gailua kaltetu dezaketen birusak izan ditzakete. Arriskua saihesteko, konfiantzazko guneetatik baino ez deskargatu.

Zenbait multimedia fitxategik Eskubide Digitalen Kudeaketa (Digital Rights Management) dute jabetza eskubideak babesteko. Babes honek deskargatzea, kopiatzea, aldatzea eta transferitzea eragozten du.

### Fitxategiak deskargatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
2. Bilatu fitxategia edo aplikazioa eta deskargatu.

Android Market ez diren beste guneetatik jaitsitako aplikazioak instalatzeko, hautatu **Ajustes** → **Aplicaciones** → **Fuentes desconocidas**.

### Deskargen historia ikustea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
2. Sakatu [ ] → **Más** → **Descargas**.
3. Deskargen historiaren zerrenda ezabatzeko, sakatu [ ] → **Borrar lista**.

   Deskarga bertan behera uzteko [ ] → **Cancelar todas las descargas**.

# Datuen sinkronizazioa

Datuak (Googleko mezuak, egutegia eta kontaktuak) sinkronizatu ditzakezu Googleko web zerbitzariarekin eta datuen segurtasun kopiak egin edo leheneratu.

Behin sinkronizazioa amaituta, telefonoa Webera konektatuta jarraitzen du. Aldaketaren bat egiten baduzu, informazio eguneratua pantailan agertuko da eta automatikoki hasiko da sinkronizatzen.

## Sinkronizazio automatikoa aktibatzea

Edozein aplikazioko (Google Mail, Egutegia eta Kontaktuak) datuak gehitu edo aldatuz gero, informazio eguneratua pantailan agertuko da.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Sincronización de dato**s.
2. Hautatu **Autosinc**.
3. Sinkronizatu nahi dituzun aplikazioak hautatu.

Sinkronizazio automatikotik kanpo utzi nahi dituzun aplikazioak hautatzeko, desmarkatu aplikazioaren ondoko laukitxoa.

## Datuak eskuz sinkronizatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Sincronización de datos.**
2. Sakatu[ ] → **Sincronizar ahora**. Gailuak konfiguratu dituzun datuen sinkronizazioarekin hasiko da.

# komunikazioa

Ikas ezazu deiak egiten edo erantzuten, eta deien oinarrizko funtzioak erabiltzen; mezuak bidali eta jasotzen sare mugikorrak eta internet erabiliz.



## Deiak

Ikas ezazu deiak egiten edo erantzuten, eta deien oinarrizko funtzioak erabiltzen.

Dei bat egiten ari zarenean, telefonoak automatikoki blokeatzen du ukitzeko pantaila, nahi gabe ezer ez sakatzeko.

### Deitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu [ ] duela gutxi erabilitako zenbakien zerrenda ikusteko.
2. Hautatu **Marcador**.
3. Idatzi area-kodea eta telefono-zenbakia.
4. Sakatu [ ] zenbakia markatzeko.
5. Deia bukatzeko, sakatu [ ].

## Dei bati erantzutea

1. Dei bat jasotzen duzunean, sakatu [ ].

Entzungailua telefonora konektatuta badago, honen botoia sakatu dezakezu.

2. Deia amaitzeko, sakatu [ ].

## Bolumena doitzea

Hitz egiten ari zarenean bolumena doitzeko, sakatu bolumen tekla gorantz edo beherantz.

## Bozgorailuaren funtzioa erabiltzea

1. Dei batean, sakatu [ ] → **Altavoz** bozgorailua aktibatzeko.
2. Entzungailua berriz erabiltzeko, errepikatu 1.

Inguru zaratatsuetan, arazoak egon daitezke deiak entzuteko bozgorailua piztuta dagoela. Erabili modu normala funtzionamendu hobea lortzeko.

## Galdutako deiak ikusi eta markatu

Telefonoaren pantailan agertzen dira galdutako deiak. Dei galdu baten zenbakia markatzeko:

1. Dei galduaren adierazlea hautatu.
2. Markatu nahi duzun dei galdura joan.
3. Sakatu [ ] markatzeko.

## Duela gutxi markatutako zenbaki batera deitu

1. Hasierako pantailan, sakatu [ ] zenbaki berrien zerrenda ikusteko.
2. Hautatu markatu nahi duzun zenbakia eta , jarraian, hautatu **Llamar** edo sakatu [ ] markatzeko.

## Nazioarteko zenbaki batera deitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu [ ] zenbaki berrien zerrenda ikusteko.
2. Hautatu **Marcador**.
3. Luze sakatu **0** , **+** karakterea idazteko.
4. Markatu nahi duzun zenbaki osoa idatzi (herrialde kodea, area-kodea eta telefonoa) eta, jarraian, sakatu [ ] markatzeko.

## Aurkibideko kontaktu bati deitzea

Gordeta dituzun kontaktuak erabilita, zuzenean deitu dezakezu hauen zenbakietara. ► 57 orri.

1. Hasierako pantailan aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Aukeratu nahi duzun kontaktua.
3. Hautatu markatu nahi duzun zenbakia edo sakatu [ ] aurretik definitutako zenbakia markatzeko.

## Dei bat itxaro moduan jartzea edo berriz hartzea

Sakatu[ ] → **Retener** dei bat itxaroteko moduan jartzeko edo modu horretatik berriz hartzeko.

## Bigarren deia egitea

Sareak onartzen badu, funtzio hau erabili dezakezu dei baten beste zenbaki bat markatzeko:

1. Sakatu[ ] → **Añadir llamada** lehen deia itxaroteko moduan jartzeko.
2. Idatzi markatu nahi duzun zenbakia eta sakatu [ ].
3. Sakatu[ ] → **Cambiar llamadas** dei batetik bestera pasatzeko.
4. Uneko deia bukatzeko, sakatu [ ].

## Bigarren deia erantzutea

Sareak onartzen badu, funtzio hau erabili dezakezu bigarren dei bati erantzuteko:

1. Sakatu[ ] bigarren deia erantzuteko. Lehen deia berehala jarriko da itxaroteko moduan.
2. Sakatu[ ] → **Cambiar llamadas** dei batetik bestera pasatzeko.

## Multikonferentzia deia egitea

1. Deitu multikonferentzia-deira gehitu nahi duzun lehen parte-hartzaileari.
2. Lehen parte-hartzailearekin konektatuta zaudela, deitu bigarrenari. Lehen parte-hartzailea zain jartzen da automatikoki.
3. Bigarren parte-hartzailearekin konektatuta zaudela, sakatu [ ] → **Combinar llamadas**.
4. Eman berriro 2. eta 3. pausoak, solaskide gehiago eransteko (beharrezkoa bada).
5. Parte-hartzaile batekin pribatuan hitz egiteko, sakatu [ ] → **Administrar multiconferencia**. Jarraian, hautatu parte-hartzailea →

6. Parte-hartzaile bat konferentziatik deskonektatzeko, hautatu parte-hartzailearen ondoan. Multikonferentzia amaitzeko sakatu [ ].

# Testu eta multimedia mezuak

Mezularitza funtzioak erabili. Testu idazteko argibideak irakurtzeko, ikusi "Testua idaztea ". ► 31. orri.

## Testu mezua bidaltzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Mensajería** → **Mensaje nuevo**.
2. Hautatu hartzaileen eremua.
3. Idatzi hartzailearen zenbakia.
4. Hautatu testua idazteko eremua.
5. Idatzi mezuaren testua.

   Keinu ikonoak sartzeko, sakatu [ ] → **Insertar emoticono**.
6. Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

   Bidalitako mezua gorde egiten da beste mezuekin batera.

## Multimedia mezua bidaltzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Mensajería** → **Mensaje nuevo**.
2. Hautatu hartzaileen eremua.
3. Idatzi hartzailearen zenbakia edo posta elektronikoa.
4. Hautatu testua idazteko eremua.

5. Idatzi mezuaren testua.
Keinu ikonoak sartzeko, sakatu [ ] → **Insertar emoticono**.
6. Sakatu [ ] → **Adjuntar** → aukera bat eta elementua gehitu.
7. Sakatu [ ] → **Añadir asunto** eta mezuaren gaia gehitu.
8. Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.
Bidalitako mezua gorde egiten da beste mezuekin batera.

## Testu eta multimedia mezuak ikustea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Mensajería**.
2. Hautatu testu edo multimedia mezu bat gordetako mezuen zerrendatik.
3. Multimedia mezu bat ikusteko sakatu erantsitako fitxategia ikusteko.

## Google Mail™

Google Maileko mezu elektroniko berriak sarrerako postontzian berreskuratu daitezke. **Google Mail** abiatzerakoan, sarrerako postontzia agertzen da. Titulu-barran irakurri ganeko mezuen kopura agertzen da letra lodiz. Mezuren bat izendatuz gero, mezuaren ondoan agertuko da kolorezko errektangelu batean.

- Zerbitzu hornitzailearen arabera, Google Mail menu honek beste izen bat izan ditzake.
- Google Mail lehen aldiz abiatzean, ez da zure Posta elektronikoa agertuko sinkronizazio automatikoa desaktibatuta dagoelako. Konfigurazioa aldatu eta korreoa sinkronizatzeko, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Sincronización de datos** → **Autosinc**.

## Mezu elektronikoak ikustea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Mail**.
2. Hautatu mezu elektroniko bat gordetako mezuen zerrendatik.

Mezu erantzun edo birbidali daiteke; irekita dagoen mezuan hautatu **Responder**, **Responder a todos** edo **Reenviar**.

## Mezu elektronikoak etiketa bidez antolatzea

Mezu elektronikoak mezuen izenen arabera edo mezu garrantzitsuak markatzeko erabiltzen diren izarren arabera antolatu daiteke. Mezuak etiketen filtroen arabera sailkatu daitezke.

### Mezuari etiketa jartzea

1. Sarrerako postontziaren pantailan, luze sakatu mezua.
2. Hautatu **Cambiar etiquetas**.
3. Etiketa bat hautatu eta, jarraian, hautatu **Aceptar**.

### Mezuari izarra gehitu

1. Sarrerako postontziaren pantailan, luze sakatu mezua.
2. Hautatu **Añadir estrella**. Izarraren ikonoa agertuko da mezuaren ondoan.

### Mezuak iragaztea

1. Sarrerako postontziaren pantailan, sakatu [ ] → **Ver etiquetas**.
2. Hautatu ikusi nahi dituzun mezuen etiketak.

## Mezu elektronikoa bidaltzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Mail**.
2. Sakatu[ ] → **Redactar**.
3. Idatzi izena edo helbidea hartzailearen eremuan.
4. Idatzi gaia eta mezua.
5. Irudi bat eransteko, sakatu [ ] → **Adjuntar** → fitxategia.
6. Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

# Mezu elektronikoak

Ikasi zure laneko edo kontu pertsonaleko mezu elektronikoak ikusten edo bidaltzen.

## POP3 edo IMAP kontua konfiguratzea

POP3 edo IMAP bost kontu ezberdinetatik berreskuratu daitezke mezuak.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Correo electrónico**.
2. Hautatu **Siguiente** kontuen konfigurazioa hasteko.
3. Idatzi zure posta elektronikoa eta pasahitza eta, jarraian, hautatu **Siguiente**.
4. Kontu mota aukeratu (POP3 edo IMAP).
5. Jarraitu pantailako argibideei.

## Mezu elektronikoak ikustea

Mezu elektronikoko kontu bat irekitzean, aurretik berreskuratutako mezuak konexiorik gabe ikusi daitezke, edo zerbitzariarekin konektatu dezakezu mezu berriak ikusteko.

Mezu elektronikoak berreskuratu ondoren, konexiorik gabe irakurri daitezke.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Correo electrónico** → zure korreo postontzia.
2. Sakatu[ ] → **Actualizar** sarrerako postontzia mezu berriekin eguneratzeko.
3. Hautatu mezu elektroniko bat gordetako mezuen zerrendatik.

## Mezu elektronikoa bidaltzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Correo electrónico** → posta kontu bat.
2. Sakatu[ ] → **Escribir email**.
3. Idatzi posta elektronikoko helbide bat.
4. Hautatu gaia idazteko eremua eta idatzi.
5. Hautatu testua idazteko eremua eta idatzi.
6. Irudi bat eransteko, sakatu [ ] → **Añadir adjunto** → fitxategia.
7. Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

Konexiorik gabe edo zerbitzu eremutik kanpo bazaude, mezua zerrenda geratuko da konektatu eta zerbitzu eremu barruan egon arte.

## Posta kontua ezabatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Correo electrónico**.
2. Sakatu[ ] → **Cuentas**.

3. Luze sakatu ezabatu nahi duzun kontua.
4. Hautatu **Eliminar cuenta**.

## Google Talk™

Ikasi lagunei eta familiakoei berehalako mezuak bidaltzen Google Talk erabilita.

### Elkarrizketa hastea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Talk**.

   Lagunen zerrendan dituzun kontaktu guztiak agertzen dira, lau mailatan banatuta: **disponible, inactivo, ocupado** eta **desconectado**.

2. hautatu lagun bat zerrendatik. Elkarrizketa pantaila irekiko da.
3. Idatzi mezua eta sakatu **Enviar**.

   Keinu ikonoak sartzeko, sakatu [ ] → **Más** → **Insertar emoticono**.

4. Martxan dauden elkarrizketen artean aldatzeko sakatu [ ] → **Cambiar de chat**.
5. Elkarrizketa bukatzeko, sakatu [ ] → **Finalizar chat**.

### Lagunen zerrendara lagunak gehitzea

1. Lagunen zerrendan, sakatu [ ] → **Añadir amigo**.
2. Idatzi posta elektronikoko helbide bat bilaketa eremuan.

   Kontaktuen zerrendako helbide bat nahi baduzu, idatzi izena eta kontaktua bilaketa zerrendatik hautatu.

3. Hautatu **Enviar invitación**.

# multimedia

Ikasi telefonoaren multimedia aplikazioak erabiltzen: Musika, Bideoak, Kamera, Galeria eta YouTube.



## Fitxategi formatu bateragarriak

Gailuak honako fitxategi formatuak onartzen ditu:

| Fitxategi mota | Luzapena |
|---|---|
| Audio | .arm, .mp3, .mid, .ogg, .wav, .imy, .ota, .rtttl |
| Bideo | .3gp, .mp4 |
| Irudia | .bmp, .gif, .jpg, .png |
| **Fitxategi mota** | **Kodeka** |
| Audio | • Deskodetu: MP3, OGG, AAC, AAC+, eAAC+, MIDI (SMF, XMF, RTTTL/RTX, OTA, iMelody)<br>• Kodetu: AMR-NB |

| Fitxategi mota | Kodeka |
|---|---|
| Bideo | • Deskodetu:<br>- Bideo: H.264, MPEG4, H.263<br>- Audio: AAC, AMR-NB<br>• Kodetu: MPEG4 (Bideo) + AMR-NB (Audio) |

# Musika

Ikasi musika entzuten erreproduzitzailea erabilita.

## Musika fitxategiak gehitzea

Hasteko, transferitu fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera:

- Deskargatu fitxategiak haririk gabeko saretik. ► 34. orri
- Kopiatu memoria-txartelean.

### Musika fitxategiak memoria-txartelean kopiatzea

1. Sartu memoria-txartel bat.
2. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera.
3. Egoera-barra ireki eta hautatu **USB conectado** → **Activar.**
   Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
4. Ireki karpeta fitxategiak ikusteko.
5. Kopiatu PCko fitxategiak memoria-txartelean.

## Musika fitxategiak erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Música**.
2. Kategoria hautatu → musika fitxategia

3. Erabili ikono eta tekla hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Ikonoa/Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| / | Erreprodukzioa etan edo hasteko |
| 1 | Aurreko fitxategira joateko edo fitxategian bertan atzera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta)) |
| 1 | Hurrengo fitxategira joateko edo fitxategian bertan aurrera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta) |
| | Er reprodukzio zerrenda irekitzeko |
| | Usazko modua aktibatzeko |
| | Errepikapen modua aldatzeko |
| Volumen | Bolumena doitzeko |

| Ikonoa/Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| | Aukeretara sartzeko |
| Progresio -barra | Fitxategiko une zehatz bat erreproduzitzeko (lerratu atzamarra aurrerapen-barran) |

1. Bluetooth entzungailuak erabiltzen dituzunean, ez dituzu aukera hauek eskuragai izango.

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Música**.
2. Kategoria hautatu → musika fitxategia.
3. Sakatu[ ] → **Añadir a lista de reproducción** → **Nuevo**.
4. Idatzi erreprodukzio-zerrenda berriaren izena eta hautatu **Guardar**.

5. Musika fitxategi gehiago sartzeko erreprodukzio zerrendan, fitxategia erreproduzitu eta sakatu [ ] → **Añadir a lista de reproducción** → erreprodukzio-zerrenda.

## Usazko sesioaren funtzioa

Uneko erreprodukzio zerrendara, nahi beste fitxategi gehitu daitezke.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Música**.
2. Kategoria hautatu → musika fitxategia.
3. Sakatu[ ] → **Aleatorio Fiesta**.
4. Funtzioa desaktibatzeko hautatu .

# Argazki-kamera eta bideokamera

Ikas ezazu argazkiak modu ezberdinetan ateratzen eta kameraren doikuntzak pertsonalizatzen. Kamera erabiltzeko, aurretik memoria-txartela sartu behar duzu.

## Argazkiak ateratzea

1. Luze sakatu kamera tekla argazki-kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera, horizontalean gelditu arte.
3. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
4. Sakatu kameraren tekla edo hautatu argazkia ateratzeko. Argazkia automatikoki gordetzen da.

Argazkiak atera ondoren, hautatu pantailako ezkerreko goialdean koadro txikia argazkiak ikusteko.

## Bideoak grabatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Videocámara**.
2. Biratu telefonoa ezkerrera, horizontalean gelditu arte.
3. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
4. Sakatu kameraren tekla edo hautatu grabazioa hasteko.
5. Sakatu kameraren tekla edo hautatu grabazioa gelditzeko.

   Bideoa automatikoki gordetzen da.

Argazkiak grabatu ondoren, hautatu pantailako ezkerreko goialdean koadro txikia bideoak ikusteko.

## Kameraren konfigurazioa pertsonalizatzea

1. Luze sakatu kamera tekla argazki-kamera pizteko.
2. Sakatu[ ] → **Ajustes**.
3. Pertsonalizatu honako aukerak:
   - **Almacenar ubicación en imágenes**: argazkiak ateratzean lekuaren informazioa gehitzeko (latitudea, longitudea).
   - **Seleccionar la calidad del vídeo**: bideoak grabatzeko kalitatea aukeratzeko.
   - **Seleccionar modo Noche**: argi gutxiko tokietan argazkiak ateratzeko.

# Galeria

Argazki eta bideo guztiak Galeriatik kudeatzen ikasi.

## Irudi bat irekitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Galería**.
2. Hautatu irudi karpeta bat → irudi fitxategia. Ateratako argazkiak hemen gordetzen dira: **Imágenes ...cámara**.
3. Hautatu ◁ edo ▷ argazkietatik mugitzeko.
   - Tamaina handitu edo txikitzeko, hautatu ⊕ edo ⊖.
   - Biratzeko, sakatu[ ] → **Rotar** → biratzeko aukera bat.
   - Irudiaren zati bat mozteko, sakatu [ ] → **Recortar**. Jarraian, mugitu edo aldatu errektangeluaren tamaina moztu beharreko lekua definitzeko eta hautatu **Guardar**.

## Bideo bat irekitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Galería**.
2. Hautatu bideo karpeta bat → bideo fitxategia. Grabatutako bideoak hemen gordetzen dira: **Vídeos de la cámara**.
3. Biratu telefonoa ezkerrera, horizontalean gelditu arte.

4. Erabili ikono eta tekla hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Icono/Tecla | Función |
|---|---|
| / | Erreprodukzioa etan edo hasteko |
| [1] | Atzerantz egiteko |
| [1] | Aurrerantz egiteko |
| Volumen | Bolumena doitzeko |
| Barra de progreso | Fitxategiko une zehatz bat erreproduzitzeko (lerratu atzamarra aurrerapen-barran) |

1. Bluetooth entzungailuak erabiltzen dituzunean, ez dituzu aukera hauek eskuragai izango.

- Ez blokeatu gailuaren pantaila DivX VOD erreproduzitzen duen bitartean. Egiten duzun bakoitzean, alokatzeko dituzun kontuetako bat gutxitu egingo da.
- Ez biratu gailua Android Marketen erositako DivX VOD erreproduzitzen duzun bitartean. Egiten duzun bakoitzean, alokatzeko dituzun kontuetako bat gutxitu egingo da.

## Diapositiba aurkezpen bat erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Galería**.
2. Hautatu irudi karpeta bat.

3. Sakatu [ ] → **Presentación de diapositivas**. Aurkezpenaren konfigurazioa pertsonalizatzeko, sakatu [ ] → **Más** → **Ajustes** eta konfigurazioa aldatu **Configuración de presentación de diapositivas**.

## Irudiak edo bideoak partitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Galería**.
2. Hautatu irudi edo bideo karpeta bat.
3. Luze sakatu irudi edo bideo fitxategia.
4. Hautatu **Compartir**.
5. Hautatu partitzeko aukera bat.

# YouTube™

YouTube bideoak sarean emititzeko dohainezko zerbitzu bat da. Ikasi bideoak ikusten eta partitzen YouTube erabilita.

## Ver vídeos

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **YouTube**.
2. Hautatu bideo bat eskainitakoen artean.
3. Biratu telefonoa ezkerrera, horizontalean gelditu arte.
4. Erabili ikono eta tekla hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Ikonoa/Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| / | Erreprodukzioa eten edo hasteko |

| Ikono/Tekla | Funtzio |
|---|---|
| | Atzerantz egiteko |
| | Aurrerantz egiteko |
| Bolumen | Bolumena doitzeko |
| Progresio-barra | Fitxategiko une zehatz bat erreproduzitzeko (lerratu atzamarra aurrerapen-barran) |

## Bideoak partitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **YouTube**.
2. Luze sakatu bideo bat.
3. Hautatu **Compartir**.
4. Hautatu Google Mail eta Mezularitzako (MMS) partitzeko aukera bat.

   Mezuak idaztekoa irekiko da bideoaren loturarekin.

# Java ME aplikazioak

Gailuaren Java Micro Edition (ME) aplikazioak erabiltzen ikasi. Java MEk konexioarekin eta konexio gabeko aplikazioak onartzen ditu, modu dinamikoan deskargatu daitezkeenak.

- Funtzio hau ingelesez baino ez dago.
- Funtzio hau herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera eskura daiteke.

## Java aplikazioak deskargatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Java ME Apps**.
2. Sakatu [ ] → **Download App**..
3. Hautatu deskargatu nahi duzun aplikazioa.

## JAVA aplikazioa abiaraztea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Java ME Apps**.
2. Hautatu aplikazio bat.

Memoria-txartelean gordetako aplikazioak abiarazteko, sakatu [ ] → **Scan SDcard**.

## Aplikazioen konfigurazio aukerak doitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Java ME Apps**.
2. Luze sakatu aplikazio bat.
3. Hautatu **Application settings** eta konfigurazio aukerak aldatu.
   - **Permissions**: Java edo MIDlets aplikazioek sare lokalak eta konexioak edo baimena behar duten beste zerbitzuak erabiltzeko baimena emateko balio du.
   - **Background running**: beste aplikazio batzuk erabiltzen duzun bitartean Java atzealdean erabili daitekeen adierazten du.
   - **No default MIDlet**:aurretik ezarritako MIDleta hasteko bat baino gehiago daudenean.
   - **Full screen support**: martxan dagoen Java aplikazioa pantailan osoan ikusteko aukera ematen du.
   - **Alternative key mapping**: martxan dagoen bitartean Java aplikazio berezietarako Jblen kode klabe bateragarria erabiltzeko aukera ematen du.

# produktibitate pertsonala

Ikasi kontaktuak kudeatzen eta egutegiko gertakizunak programatzen. Kontaktuak eta egutegia Googleko web zerbitzariarekin sinkronizatuta daude.



## Kontaktuak

Ikasi taldeak eta kontaktu txartelak erabiltzen izena, telefono zenbakiak eta helbideak bezalako informazio pertsonala gordetzeko.

### Kontaktua sortzea

Kontaktu bat sortzeko markatze pantailatik:

1. Hasierako pantailan, sakatu [ ] duela gutxi erabilitako zenbakiak ikusteko.
2. Hautatu **Marcador**.
3. Idatzi telefono zenbakia eta sakatu [ ] → **Agregar a Contactos** → **Crear nuevo contacto**.
4. Idatzi kontaktuaren informazioa.

   Deitzen ari zaren pertsona identifikatzeko irudi bat gehitzeko, sakatu [ ] → **Añ icono**.

5. Bukatzen duzunean, hautatu **Finalizado** kontaktu txartela gehitzeko.

Kontaktu zerrendatik kontaktua sortzeko:

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Sakatu [ ] → **Nuevo contacto**.
3. Idatzi kontaktuaren informazioa.

Deitzen ari zaren pertsona identifikatzeko irudi bat gehitzeko, sakatu [ ] → **Añ icono**.

4. Bukatzen duzunean, hautatu **Finalizado** kontaktu txartela gehitzeko.

## SIM edo USIM txarteletik inportatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Sakatu [ ] → **Imp contactos**.
3. Hautatu nahi duzun kontaktua.

   Kontaktu guztiak inportatzeko, sakatu [ ] → **Importar todos**.
4. Kontaktuaren informazioa bete ondoren, hautatu **Finalizado** (beharrezkoa bada).

## Kontaktu bat bilatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Sakatu [ ] → **Buscar**.
3. Hautatu **Buscar contactos**.
4. Idatzi bilatu nahi duzun izenaren lehen hizkiak eta hautatu .
5. Hautatu kontaktuaren izena bilaketa zerrendatik.

Behin kontaktua bilatuta, honako aukera hauek dituzu:

- Sakatu [ ] kontaktuari deitzeko.
- Kontaktuaren informazioa editatzeko sakatu [ ] eta jarraian **Editar contactos**.

## Kontaktu gogokoenen zerrenda konfiguratzea

Nahi dituzun kontaktuak gogokoen bezala konfiguratu daitezke eta gainerako kontaktuetatik aparte kudeatu. Hasteko, kontaktuak gehitu gogokoenen zerrendara.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Luze sakatu kontaktu bat eta hautatu **Añadir a favoritos**.
3. Errepikatu 2. Pausua kontaktu gehiago gehitzeko.

Gogokoenen zerrendara sartzeko, ireki kontaktuen zerrenda eta aukeratu **Favoritos** fitxa.

## Kontaktuak taldean iragaztea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Sakatu[ ] → **Mostrar grupo**.
3. Talde bat hautatu → **Aceptar**.

   Kontaktuak aukeratutako taldearen arabera iragaziko dira.

## Kontaktu taldeak sinkronizaziorako konfiguratzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Contactos**.
2. Sakatu [ ] → **Edit gr de sinc**.

3. Hautatu Googleko zerbitzariarekin sinkronizatu nahi duzun kontaktu taldea.

   Kontaktu guztiak sinkronizatzeko, hautatu **Sincronizar todos los contactos**.
4. Hautatu **Aceptar**.

## Egutegia

Erabili egutegia hileko, asteko edo eguneko plangintzaren erregistroa eramateko.

### Egutegiaren bistaratzea aldatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Calendario**.

   Egutegia hileko bistan zabaltzen da.
2. Sakatu[ ] →bistaratze aukera bat:
   - **Agenda**: hileko hitzorduen zerrenda.
   - **Día**: egun osorako orduko blokeak.
   - **Semana**: aste osoko egunetarako orduko blokeak.

### Egutegi bat baino gehiago ikustea

Google Calendar egutegi bat sortu baduzu eta gailuarekin sinkronizatuta badago, telefonoan agertzeko aukeratu dezakezu. Google Calendaren sortutako gertakizunak ere ikus ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Calendario**.
2. Sakatu[ ] → **Más** → **Mis calendarios**.

   Gailuarekin sinkronizatutako egutegi guztiak zerrendan agertzen dira.
3. Egutegien ondoko baieztatze laukitxoak aukeratu zure telefonoan agertzeko.

## Gertakizun bat sortzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Calendario**.
2. Sakatu[ ] → **Nuevo evento**.
3. Ereduak bete eta gertakizunaren doikuntzak aldatu.

   **Calendario** eremuan, erakutsi beharreko egutegia aukeratu (bat baino gehiago balego).
   **Recordatorios** eremuan, gertakizuna aurretik gogorarazteko ordutegia konfiguratu.
   Gogorarazteko alarmak gehitzeko sakatu [ ] → **Añadir recordatorio**.
4. Bukatzen duzunean, hautatu **Guardar**.

## Eguneko egutegia ikustea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Calendario**.
2. Sakatu[ ] → **Hoy**.
3. Gertakizun aukeratu xehetasunak ikusteko.

## Gertakizunak gogorarazteko

Egutegiko gertakizun bat gogorarazteko alarma jartzen baduzu, ikonoa agertuko da egoera-barran.

1. Egoera barra goitik bera lerratu jakinarazpen zerrenda irekitzeko.
2. Gertakizunaren xehetasunak ikusteko gogorarazteko ikurra aukeratu.

3. Gogorarazpen abisua errepikatu edo itzaltzeko hautatu **Repetir todo** edo **Descartar todo**.

Gogorarazpen abisua aldatu daiteke. Egutegiaren edozein bistan, sakatu [ ] → **Más** → **Ajustes** → **Definir alertas y notificaciones**. Hautatu **Alertar** (leiho bat agertzeko), **Notificación de la barra de estado** (egoera-barran [ ] ikonoa agertzeko) edo **Desconectado** (abisua itzaltzeko).



# weba

Ikasi haririk gabeko sarera konektatzen nabigatzailea erabilita. Ikasi Googleko bilaketa eta Google Maps erabiltzen.



## Nabigatzailea

Ikasi web orrialdeetara sartzen eta gogokoenetan gordetzen.

- Web-ean nabigatzeak eta multimedia fitxategiak deskargatzeak kargu gehigarriak sor ditzake.
- Zerbitzu hornitzailearen arabera aplikazioak beste izen bat izan dezake.
- Baliteke telefonoak dakartzan aukerak aldatzea zure lurraldearen arabera edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Web orrialdeetan nabigatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
   Aurrezarritako hasierako orrialdea irekiko da.
2. Web orrialde batera sartzeko:

- Sakatu [ ] → **Favoritos** → gogoko elementu bat.
- Sakatu [ ] → **Favoritos**, **Más visitados** edo **Historial** fitxa aukeratu eta, jarraian, web orrialde bat aukeratu.
- Sakatu [ ] → **Ir**, helbide bat idatzi eta jarraian hautatu **Ir**.

3. Funtzio hauek erabili web orrialdeetan nabigatzeko:
   - Aurreko orrialdera bueltatzeko, sakatu [ ].
   - Web orrialde bat berritzeko, sakatu [ ] → **Actualizar**.
   - Web orrialde baten tamaina handitu edo txikitzeko sakatu edozein norabiderantz edo agertu arte eta ikono bat aukeratu irudia hurbildu edo urruntzeko. Jatorrizko bistara bueltatzeko hautatu **1x**. Ikusten ari zaren orrialdeak ez du irudia hurbiltzeko eta urruntzeko aukera ematen.

## Orrialde batzuk irekitzea

Orrialde batzuk ireki eta batetik bestera mugitu zaitezke.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
2. Sartu web orrialdera eta sakatu [ ] → **Nueva ventana**.
3. Ireki beste web orrialde bat leiho berrian.
4. Errepikatu 2 eta 3 pausuak orrialde gehiago irekitzeko.
5. Sakatu [ ] → **Ventanas** irekita dauden orrialdeak ikusteko.
6. Aukeratu orrialde bat berreskuratzeko.

## Web orrialde baten testua bilatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
2. Sakatu[ ] → **Más** → **Buscar en pág**.
3. Idatzi hitz gakoa bilaketa eremuan.
   Web orrialdeak bilaketarekin bat datorrena nabarmenduko du.

## Web orrialde gogokoenak markatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Navegador**.
2. Sakatu[ ] → **Favoritos** → **Añadir favorito**....
3. Idatzi orrialde baten izenburua eta helbidea.
4. Hautatu **Aceptar**.

## Web orrialde batetik testua kopiatzea

Web orrialde batetik testua kopiatu daiteke gero beste aplikazio baten txertatzeko, ohar bat sortzeko adibidez.

1. Orrialdeetatik nabigatzean, sakatu [ ] → **Más** → **Seleccionar texto**.
2. L erratu atzamarra nahi duzun testu gainetik.
   Nabarmendutako testua arbelean kopiatzen da.
3. Beste aplikazio baten, luze sakatu testua idazteko eremua.
4. Hautatu **Pegar** testua eremuan txertatzeko.

## Googleko bilaketa

Web guneei buruzko informazio bilatu dezakezu Google bilaketa zerbitzua erabilita. Googleko bilaketa-barra hasiera pantailan lehenetsita eransten da.

1. Hasierako pantailan sakatu [🌐].
2. Idatzi hitz gakoa eta hautatu 🔍. Googlen webgunera konektatuko da.

## Google Maps™

Ikasi kokapena bilatzen, kale, hiri eta herrialdetako lineako mapak bilatzen eta helbideak lortzen.

Google Maps erabiltzeko, hautatu **Ajustes** → **Seguridad y ubicación** → **Utilizar redes inalámbricas y Activar satélites GPS**.

### Maparen bista aldatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Maps**.
2. Hautatu **Aceptar** sarrerako pantaila ixteko (beharrezkoa bada).
3. Sakatu [ ] → **Modo de mapa** → bistaratzeko modua.

### Mapan bilatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Maps**.
2. Ierratu atzamarra nahi duzun norabidean mapa barruan.
3. Irudi handitzeko edo txikitzeko, pantaila sakatu eta, jarraian, hautatu 🔍+ edo 🔍− .

## Zure kokapena bilatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Maps**.
2. Sakatu [ ] → **Mi ubicación**.

## Kokapen zehatz bat bilatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Maps**..
2. Sakatu[ ] → **Buscar**.
3. Erabili hauetako modu bat:
   - Idatzi helbidea.
   - Idatzi enpresaren kategoria.
   - Bisitatu duzun helbide bat hautatu zabaltzeko menuan.
4. Hautatu .

## Helmuga zehatz bateko helbideak lortzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Google Maps**.
2. Sakatu [ ] → **Indicaciones**.
3. Idatzi hasierako eta bukaerako kokapenaren helbidea.

   Kontaktuen zerrendatik helbide bat sartzeko edo kokapena mapan markatzeko, hautatu → **Contactos** edo **Punto en el mapa**.
4. Garraiobidea aukeratu (autoa, autobusa edo oinez) eta hautatu **Ir**.
5. Hautatu bidaiaren ibilbidea xehetasunak ikusteko (beharrezkoa bada).
6. Sakatu[ ] → **Mostrar en el mapa**.
7. Bukatzen duzunean, sakatu [ ] → **Más** → **Borrar resultados**.

# tresnak

Ikasi telefonoaren tresnak eta aplikazio gehigarriak erabiltzen.

## Bluetootha

Ezagutu itzazu zure telefonoak beste haririk gabeko gailuekin konektatu eta datuak trukatzeko eta esku libreko funtzioak erabiltzeko dituen gaitasunak.

### Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Controles inalámbricos**.
2. Hautatu **Bluetooth** haririk gabeko Bluetooth funtzioa aktibatzeko.

## Bluetooth-erako gaitutako beste gailuak bilatzea eta haiekin konektatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Controles inalámbricos** → **Ajustes de Bluetooth** → **Buscar dispositivos.**

   Gailuak bilatu eta zerrendatuko ditu Bluetooth-erako gaitutako gailuak.

2. Gailu bat aukeratu zerrendatik.

3. Idatzi Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa edo beste gailuaren Bluetooth-aren PINa, (baldin badu), eta sakatu **Aceptar**. Beste gailuaren jabeak kode bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira.

- Bluetootherako gaitutako beste gailu batekin konektatzeko, biek PIN bera erabili behar dute. Gerta daiteke entzungailuek edo esku-libreko gailuek PIN zehatz bat erabiltzea, adibidez 0000.
- Gailuaren arabera gerta daiteke PINik idatzi behar ez izatea.

## Beste Bluetooth gailuak zure lokalizatu dezaten baimentzea

Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Controles inalámbricos** → **Ajustes de Bluetooth** → **Visible**. Beste gailuek 120 segundoz detektatu dezakete zure gailua.

## Wi-Fia

Ikasi haririk gabe LAN bat aktibatzen eta konektatzen. WLAN sare baten pean zaudenean, gailua sarera konektatu daiteke deiak egin edota datuak internet bidez bidaltzeko edo saretik nabigatzeko.

Gailu honek bateratu gabeko frekuentzia erabiltzen du eta Europako herrialdeetan erabiltzeko diseinatuta dago. WLAN murrizketarik gabe erabili daiteke etxe barrualde Europar Batasunean, baina ezin da kanpoaldean erabili Frantzian.

### WLAN bat aktibatzea eta konektatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Controles inalámbricos**→ **Wi-Fi**.

   Gailuak detektatu eta erabilgarri dauden WLAN guztien berri ematen du.

2. Hautatu **Ajustes Wi-Fi**.
3. Sare bat hautatu **Redes Wi-F**i aukeran.
4. WLANerako pasahitza idatzi eta hautatu **Fin**.
5. Hautatu **Conectar**.
6. Web menu bat hautatu lineako zerbitzuetara WLAN bidez konektatzeko.

Bigarren planoan aktibatutako WLANak bateria kontsumitzen du. Bateria zaintzeko, behar duzunean baino ez aktibatu WLANa.

## WLAN bat gehitzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes** → **Controles inalámbricos** → **Ajustes Wi-Fi** → **Añadir red Wi-Fi.**
2. Idatzi sareko SSID eta segurtasun mota aukeratu.
3. Ezarri segurtasun konfigurazioa aukeratu duzun segurtasun motaren arabera.
4. Bukatzen duzunean, hautatu **Guardar**.

# Alarma

Ikasi gertakizun garrantzitsuetarako alarmak konfiguratzen eta kontrolatzen.

## Alarma berri bat ezartzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Reloj de alarma**.
2. Sakatu[ ] → **Añadir una alarma.**
3. Hautatu **Activar alarma**.
4. Eremu bakoitzean konfiguratu alarmaren xehetasunak (ordua, doinua, bibrazioa, errepikatu eta etiketa).
5. Bukatzen duzunean sakatu [ ].

## Alarma gelditzea

Alarmak jotzen duenean, hautatu **Rechazar** alarma gelditzeko edo **Repetir** 10 minutu pasatu ondoren berriz jotzeko.

## Alarma ezabatzea

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Reloj de alarma**.
2. Luze sakatu ezabatu nahi duzun alarma.
3. Hautatu **Eliminar alarma** → **Aceptar**.

## Erloju mota aldatzea

Erlojuaren itxura aldatu dezakezu.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Reloj de alarma**.
2. Hautatu erlojuaren irudia.
3. Lerratu atzamarra ezkerrerantz edo eskuinerantz pantailaren beheko aldean.
4. Hautatu nahi duzun erlojua.

# Kalkulagailua

Erabili kalkulagailua matematika eragiketa sinpleak egiteko.

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Calculadora**.
2. Idatzi zenbakia eta eragiketak pantailako kalkulagailuaren botoiak erabilita. Agertzen diren zenbakiak ezabatzeko, hautatu **BORRAR**.
3. Emaitza ikusteko, hautatu =.

Eragile aurreratuak erabiltzeko, sakatu [ ] → **Panel avanzado**.

# doikuntzak

Ikasi gailuaren doikuntzei buruz.



Doikuntzak ikusteko:

1. Hasierako pantailan, aplikazioen zerrenda ireki eta hautatu **Ajustes**.
2. Hautatu kategoria bat.

## Haririk gabeko kontrolak

Haririk gabeko konexioen konfigurazioa aldatzeko.

### Wi-Fia

WLAN funtzioa piztu edo itzaltzeko.

### Wi-Fiaren doikuntzak

- **Wi-Fi**: WLAN funtzioa piztu edo itzaltzeko.

- **Notificación de red**: gailua programatu dezakezu sare ireki bat erabilgarri dagoenean abisatzeko.
- **Añadir red Wi-Fi:** WLAN sareak gehitzeko.

## Bluetootha

Bluetooth haririk gabeko funtzio aktibatzeko edo desaktibatzeko.

## Bluetootharen doikuntzak

- **Bluetooth**: Bluetooth haririk gabeko funtzio aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Nombre de dispositivo**: gailuaren Bluetoothari izena jartzeko.
- **Visible**: beste gailu batzuek gure gailua ikus dezaten konfiguratzeko.
- **Buscar dispositivos**: erabilgarri dauden Bluetooth gailuak bilatzeko.

## Sare mugikorrak

- **Itinerancia de datos**: atzerrian bazaude edo tokiko-sarea ez badabil, honen bitartez beste sare batera konektatzeko konfiguratu dezakezu.
- **Utilizar sólo redes 2G**: gailua 2G sareetara baino ez da konektatuko.
- **Operadores de red**: atzerrian zaudela erabilgarri dauden sareak bilatzeko eta aukeratzeko balio du.
- **Nombres de punto de acceso**: sarbide puntuen izenak konfiguratzeko (APN).

## Hegaldi modua

Gailuko haririk gabeko funtzio guztiak desaktibatzen ditu.

# Deien ezarpenak de llamada

Deien funtzioen ezarpenak aldatzeko

## Markaketa aldaezina duten zenbakiak

- **Activar número de marcación directa**: SIM edo USIM txartelean adierazitako kontaktuei baino ez din zaie deitu. Funtzio hau aktibatzeko edo desaktibatzeko, lehenengo PIN2 idatzi behar duzu eta gailua berrabiarazi.
- **Cambiar PIN2**: PIN2 aldatzeko.
- **Lista FDN**: Markaketa aldaezinerako kontaktu zerrenda konfiguratzeko.

## Ahots-postontzia

Aldatu ahots-postontziaren zenbakia.

## Deien desbideratzea

Sarrerako deiak beste zenbaki batera desbideratu daitezke. Hau eginez gero, beste zenbakia adierazi beharko duzu edo deien atzerapena zehaztu.

## Deien murrizketa

Sarrerako edo irteerako deiak murrizteko. Deiak murrizteko ezarri duzun pasahitza aldatu dezakezu.

## Deien doikuntza gehigarriak

- **ID de llamante**: zure linea identifikatzailea erakusten die irteerako deietako pertsonei.
- **Llamada en espera**: dei abisuak hartuko dituzu beste dei batekin zauden bitartean.

- **Respuesta automática**: deia hartzen ez duzunean gailuak dei bat automatikoki erantzuteko pasatu behar den denbora zehaztu dezakezu. Aukera hau entzungailuak edo Bluetooth entzungailuak konektatu daudenean baino ez dabil.

## Sare operadorea

- **Buscar redes**: atzerrian zaudenean erabilgarri dauden sareak bilatzeko eta bat erabiltzeko aukeratzeko balio du.
- **Seleccionar automáticamente**: gailua konfiguratzen du automatikoki erabilgarri dagoen lehen sarea aukeratzeko.

# Soinua eta pantaila

Gailuak dituen soinu batzuen eta pantailaren konfigurazioa aldatzeko.

## Isilik modua

Isilik modua aktibatu soinu guztiak isilarazteko.

## Txirrinaren bolumena

Doitu txirrinaren eta oharren aurrezarritako bolumena.

## Multimedia edukien bolumena

Doitu musikaren eta bideoen aurrezarritako bolumena.

## Telefonoaren doinua

Hautatu deiak jasotzen dituzunean gailuak joko duen doinua.

## Telefonoaren bibrazioa

Hautatu deiak jasotzen dituzunean gailuak egingo duen bibrazioa.

## Jakinarazpenen doinua

Sarrerako mezuak, galdutako deiak eta alarmak bezalako gertakizunak ezagutzeko doinua aukeratu.

## Ukipen doinuak

Markagailuko teklak sakatzen dituzunean gailuak egin beharreko doinua konfiguratu.

## Ukipen teklatuaren bibrazioa

Markagailuko teklak sakatzen dituzunean gailuak egin beharreko bibrazioa konfiguratu.

## Hautaketa entzungarria

Aplikazio bat edo aukera bat hautatzen duzunean ukipen pantailan, gailuak egin beharreko soinua konfiguratu.

## SD txartelaren jakinarazpenak

Memoria-txartela antzematen duenean gailuak egin beharreko doinua konfiguratu.

## Orientazioa

Pantailaren orientazioa konfiguratu gailua biratzen duzunean automatikoki aldatzeko.

## Animazioa

Leihoen artean aldatzen duzunean gailua animazio bat erakusteko konfiguratu.

## Distira

Doitu pantailaren distira.

## Pantailaren itxaroteko denbora

Gailua erabiltzen ez duzunean pantaila piztuta egongo den denbora konfiguratu.

# Datuen sinkronizazioa

Googlen web zerbitzariarekin sinkronizatuko diren aplikazioak aukeratu. ► 35 orri

# Segurtasuna eta kokapena

Gailua, SIM txartela eta GPS funtzioa babesteko konfigurazioa aldatu.

## Haririk gabeko sareak

Aplikazioak onartzen badu, kokapenak baieztatzeko haririk gabeko sareak erabiltzeko konfiguratu gailua.

## GPS sateliteak konfiguratzea

Aplikazioak onartzen badu, GPS funtzioa aktibatu kokapenak baieztatzeko. Kaleko mailan ikus daiteke kokapena GPSarekin.

## Patroia eskatzea

Pizten den bakoitzean desblokeatzeko patroia eskatzeko konfiguratu gailua. Horrela, baimenik gabeko pertsonek ezin izango dute gailua desblokeatu.

## Ageriko patroia erabiltzea

Patroia margotzen duzunean ikusgai egongo den ala ez konfiguratu.

## Ukipen erantzuna erabiltzea

Gailuaren bibrazioa konfiguratu sakatu eta patroia margotzen duzunean.

## Patroia definitzea

Gailua desblokeatzeko patroi bat definitu.
► 30 orri.

## SIM txartelaren blokeoa definitu

- **Bloquear tarjeta SIM**: PINa eskatuz, SIM txartela blokeatzeko balio du. SIM txartelarekin batera emandako PINa idatzi behar duzu.
- **Cambiar PIN de la tarjeta SIM**: PINa aldatzeko.

## Ageriko pasahitzak

Gailuak aurrezarrita du pasahitzak * ikurraren bidez azaltzea. Gailua konfiguratu pasahitza agerian uzteko idazten duzunean.

# Aplikazioak

Konfigurazioa aldatu instalatutako aplikazioak kudeatzeko.

## Jatorri ezezagunak

Hautatu aukera hau aplikazioak edozein jatorritik deskargatzeko. Aukera hau hautatu nahi ez baduzu Android Market gunetik baino ez dituzu deskargatuko.

## Aplikazioak kudeatzea

Gailuan instalatutako aplikazioetara sar zaitez eta aplikazioaren informazioa baieztatu.

Uneko aplikazioak ikusteko edo hirugarren batek sortu eta instalatuta daudenak, sakatu [ ] → **Filtro** → **En uso** edo **Terceros.**

## Garapena

- **Depuración de USB**: gailua PC batera konektatzeko datu-kable bidez egiteko aukera ematen du.
- **Permanecer activo**: bateria kargatzen den bitartean gailuko pantaila piztuta egoteko aukera konfiguratzeko.
- **Permitir ubicaciones falsas**: kokapen administrariari zerbitzuen informazioa bidaltzeko aukera ematen du hark egiaztatzeko. Aplikazioak garatzeko erabiltzen da.

# Telefonoaren eta SD txartelaren biltegiratzea

Egiaztatu memoria-txartelen eta gailuaren memoriaren informazioa, formateatu kanpoko zein barruko memoria eta gailua berrabiarazi.

# Data eta ordua

Data, ordua eta ordu-zonaren aurkezpena eta portaera kontrolatzeko.

# Hizkuntza eta testua

Testua idazteko konfigurazioa aldatu.

## Hizkuntza aukeratu

Menu eta aplikazio guztietarako pantailako hizkuntza aukeratu, eta idazteko hizkuntza testu editore guztientzako.

## Android teklatua

Zerbitzu hornitzailearen edo herrialdearen arabera aukerak aldatu daitezke.

- **Vibrar con cada pulsación de tecla**: gailuak teklak sakatzerakoan bibratzeko konfiguratu.
- **Sonido con cada pulsación de tecla**: gailuak teklak sakatzerakoan soinu bat egiteko konfiguratu.
- **Uso de mayúsculas automático**: gailuak maiuskulak erabiliko ditu bukaera puntuazio ikur baten (puntua, galdera edo harridura) ondorengo hizkian.
- **Mostrar sugerencias**: idazten zaudela gailuak hitzen iradokizunak emateko konfiguratu. Hitzen iradokizunak konfiguratu behar dituzu.

- **Autocompletar**: gailuak automatikoki sartuko du nabarmendutako hitza hutsune-barra erabilita edo puntuazio markak **Mostrar sugerencias** aukeratuta dagoenean.

## Samsung teklatua

- **Método de introducción**: testua idazteko panel mota bat aukeratzeko.
- **Idioma**: testua idazteko hizkuntza aukeratzeko.
- **Completar palabras**: gailuak automatikoki sartuko du nabarmendutako hitza hutsune-barra erabilita lehen hizkiak idatzu eta gero .
- **Completar palabras**: aurreko aukera erabili aurretik zenbat hizki idatzi behar diren zehazteko **Completar palabras**.
- **Corrección ortográfica**: gailuak automatikoki zuzenduko ditu txarto idatzitako hitzak.
- **Predicción de la siguiente palabra**: askotan erabiltzen diren hitzen edo esaldien iradokizunak eskainiko ditu gailuak.
- **Agregar automáticamente**: gailuan idazten dituzun hitz berriak automatikoki gordetzeko.
- **Sustitución automática**: gailuak automatikoki aldatuko ditu hitzak berba zehatzera lasterbideak egiten dituzunean.
- **Corrección regional**: zure herrialdeko ortografiaren arabera txarto idatzitako hitzak automatikoki zuzentzeko.

- **Recuperar**: gailuak berriz emango dizu iradokizunen zerrenda aurretik hitza txarto aukeratu baduzu.
- **Mis palabras deT9**: hitz berriak gehitu eta editatzeko.
- **Sustitución automática de T9**: hitz zehatzetara lasterbide berriak sortu eta editatzeko.
- **Vibrar con cada pulsación de tecla**: gailuak bibratu egingo du teklak sakatzerakoan.
- **Sonido con cada pulsación de tecla**: gailuak soinu bat egingo du teklak sakatzerakoan.
- **Uso de mayúsculas automático**: gailuak maiuskulak erabiliko ditu bukaera puntuazio ikur baten (puntua, galdera edo harridura) ondorengo hizkian.

## Erabiltzailearen hiztegia

Konfiguratu zure hiztegia. Sakatu [ ] → **Añadir** eta idatzi hiztegian gordetako hitza. Hiztegiko hitzak testua idazten duzunean iradokizun bezala agertuko dira.

# Telefonoari buruz

Ikusi zure telefonoari buruzko informazioa, haren egoera eta erabilera ikasi.

Samsung New PC Studio erabili nahi baduzu, USB biltegiratzea desaktibatu behar duzu **Ajustes adicionales** → **Sólo para almacenamiento masivo** gailua ordenagailuarekin konektatu aurretik.

# arazoen konponketa

Zure telefono mugikorrarekin arazoren bat baduzu, egiaztatu arazoak konpontzeko prozedura hauek arreta-zerbitzuaren profesional batekin harremanetan jarri aurretik.

## Telefonoa piztean, edo erabiltzen ari zarenean mezu hauek ager daitezke:

| Kodea | Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten: |
|---|---|
| Idatzi PIN kodea. | Telefonoa lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hau desaktibatzeko, erabili **PIN blokeoa** menua . |

| Kodea | Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten: |
|---|---|
| PUK. | SIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea. PUK kodea idazteko, luze sakatu[ ] PUK blokeo mezua agertzen denean. |
| PIN2 | PIN2 zenbakia eskatzen duen menu batera sartzerakoan, SIM txartelarekin batera hartu zenuen PIN2 zenbakia idatzi behar duzu. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan hornitzailearekin. a |

## Telefonoak SIM txartela sartzeko eskatzen du

Egiaztatu SIM txartela egoki jarrita dagoela.

## Gailuak ez du seinalerik ematen (ez dago gezirik sareko ikonoaren ondoan)

- Gailua duela gutxi piztu baduzu, itxaron 2 minutu sarea bilatu eta seinalea jasotzeko.
- Gerta daiteke seinalerik ez jasotzea tunel eta igogailuen barruan. Mugitu zaitez leku zabal batera.
- Zerbitzu gune biren artean egon zaitezke. Ondoko gunera sartzen zarenean jasoko duzu seinalea.

## PIN edo PUK ahaztu duzu

SIM txartelarekin datozen PIN edo PUK zenbakiak galdu edo ahaztu badituzu, jarri harremanetan saltzailearekin edo zerbitzu hornitzailearekin.

b

## Marra zurik daude pantailan

Gailua luzaroan itzalita egon bada edo bateria gailua itzali aurretik kendu baduzu gerta daiteke. Denbora pixka bat pasatu ondoren pantaila bere onera etorri beharko litzake.

## Zenbakia idatzi duzu, baina deia ez da gauzatzen

- Egiaztatu markaketa-tekla sakatu duzula [ ].
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Deitzeko kontaktu bat hautatu duzu, baina deia ez da gauzatzen

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.

## Deitu duen pertsonak ez du entzuten

- Ziurtatu ez zarela mugikorraren mikrofonoa estaltzen ari.
- Ziurtatu telefonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailua erabiltzen baduzu, ziurtatu behar bezala konektatuta dagoela.

## Deiaren soinuaren kalitatea eskasa da

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen telefonoaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro

## Bateria ez da behar bezala kargatzen edo telefonoa batzuetan bakarrik itzaltzen da

- Telefonoa kargagailutik deskonektatu, bateria kendu eta berriro jarri eta,jarrian, saiatu berriz kargatzen.
- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra eta jarri berri bat.

## Telefonoa berotu egiten da

Aplikazio batzuk aldi berean erabiltzen dituzunean, telefonoak energia gehiago behar du eta berotu daiteke. Hau normala da eta ez luke telefonoaren bizitzan edo errendimenduan eraginik izan behar.

## Gailuak datuak ezabatzeko eskatu dizu

Memoria erabilgarria ez da nahikoa. Mugitu datuak memoria-txartel batera edo ezabatu aplikazioetako elementu zaharrak.

## Gailuak ezin du Internetekin konektatu

- Egiaztatu Interneteko zerbitzu hornitzailearen aukerak ondo konfiguratu dituzula.
- Egiaztatu haririk gabeko konexioa aktibatuta dagoela eta seinaleak ez duela arazorik.
- Egiaztatu erabiltzailea eta pasahitza zuzen idatzi dituzula.

## Ezin duzun Bluetootherako gaituta dagoen gailurik

- Egiaztatu gailu biek haririk gabeko Bluetooth funtzioa aktibatu dutela.

d

- Egiaztatu gailuen bien arteko distantzia egokia dela eta tarteko hormarik edo eragozpenik ez dagoela.
- Egiaztatu gailu bakoitzeko ikusgarritasuna aktibatuta dagoela.
- Egiaztatu gailu biek haririk gabeko Bluetooth teknologiarekin bateragarriak direla.

## Ezin dut musikarik entzun hurruneko Bluetooth entzungailu batean

- Egiaztatu gailua entzungailura konektatuta dagoela.
- Egiaztatu entzun nahi duzun musika formatua entzungailuarekin bateragarria dela.
- Egiaztatu gailuen bien arteko distantzia egokia dela eta tarteko hormarik edo eragozpenik ez dagoela.

## Gailua ez dabil edo akatsak ematen ditu

Gerta daiteke instalatutako aplikazioek akatsak ematea. Hori gertatuz gero, sartu segurtasuneko moduan eta jarraian ezabatu instalatu dituzun azken aplikazioak. Segurtasun moduan sartzeko luze sakatu [ ] "Modo seguro" berriabiaraztean agertu arte.

Honek ez badu arazoa konpontzen, telefonoa lehenerazi honela: Hasierako pantailan, zabaldu aplikazioen zerrenda eta hautatu **Ajustes** → **Almacenamiento del teléfono y de la tarjeta SD** → **Restablecer datos de fábrica** →**Restablecer teléfono**.

Gailua fabrikako baloreetara leheneratzean aplikazio guztiak kendu egiten dira eta gordetako datu guztiak ezabatu egiten dira. Konfigurazio aukerak fabrikatik aurrezarritako baloreetara eramaten dira. Baina honek ez du aukeratutako hizkuntza berriz jarriko.

# Aurkibidea

alarma 70

Android Market 32

aplicaciones
- descargar de la Web, 34
- descargar desde Android Market, 33
- ver historial, 34

Aplicaciones Java ME 54

barra de estado 28

batería
- cargar, 21
- indicador de batería baja, 22
- instalar, 19

Bluetooth
- activar, 67
- conectarse con otros dispositivos, 68
- configuración de visibilidad, 68

Búsqueda de Google 65

calculadora 71

calendario
- cambiar vistas, 59
- crear eventos, 60
- ver el del día, 60
- ver recordatorios, 60
- ver varios calendarios, 59

cámara 49

contactos
- añadir, 56
- buscar contactos, 57
- configurar favoritos, 58
- importar de la tarjeta SIM, 57

copiar y pegar
- en una aplicación, 32
- en una página web, 64

fecha y hora 79

formatos de archivo 46

fotografías
- capturar, 49

compartir, 53
reproducir presentaciones de diapositivas, 52
visualizar, 51

galería 51

Google Mail 41

Google Maps 65

Google Talk 45

GPS 77

Internet, ver navegador web

introducir texto 31

LAN inalámbrica
añadir redes, 70
conectar, 69

llamada en espera 74

llamadas
múltiples, 39
poner en espera, 38
realizar llamadas adicionales, 39
realizar llamadas, 36
recuperar llamadas en espera, 38
responder llamadas adicionales, 39
responder llamadas, 37

marcación por tonos 29

mensajes
conversar con instantáneos, 45
enviar correo electrónico, 44
enviar Google Mail, 43
enviar mensajes multimedia, 40
enviar texto, 40
ver Google Mail, 42
visualizar correo electrónico, 43
visualizar multimedia, 41
visualizar texto, 41

mensajes de correo electrónico
configurar cuentas, 43
enviar correo electrónico, 44
enviar Google Mail, 43
ver Google Mail, 42
visualizar correo electrónico, 43

mensajes de texto
enviar, 40
visualizar, 41

mensajes multimedia
enviar, 40
visualizar, 41

multiconferencias
consultar llamadas, múltiples

navegador web
abrir varias páginas, 63
acceder a páginas web, 62
añadir favoritos, 64
descargar archivos, 34

números de marcación fija (FDN) 74

pantalla de inicio 27

patrón de desbloqueo 30

reenvío de llamadas 74

reproductor de música
añadir archivos al dispositivo, 47
crear listas de reproducción, 48
reproducir música, 47

restricción de llamadas 74

seguridad 77

sincronizar con Google
manualmente, 35
sincronización automática, 35

tarjeta de memoria 22

tarjeta SIM 19

texto
copiar y pegar, 32
introducir, 31
mensajes, 40

tono de llamada 30

vídeos
capturar, 50
compartir, 54
visualizar, 49, 51

volumen
volumen de la melodía, 29
volumen de llamada, 37

volumen de la melodía 29

Wi-Fi, ver LAN inalámbrica

YouTube 53

# Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

**Guk**, Samsung Electronics enpresak
gure erantzukizunaren pean aitortzen dugu

## GSM: GT-I5700

mugikorrak baldintza hauek betetzen dituela: Horri egiten dio erreferentzia deklarazio honek, eta bat dator estandar hauekin eta/edo beste arautegi batzuekin.

| | |
|---|---|
| Segurtasuna | EN 60950-1 : 2001+A11:2004 |
| SAR | EN 50360 : 2001 |
| | EN 62209-1 : 2006 |
| EMC | EN 301 489-01 V1.6.1 (09-2005) |
| | EN 301 489-07 V1.3.1 (11-2005) |
| | EN 301 489-17 V1.2.1 (08-2002) |
| | EN 301 489-19 V1.2.1 (11-2002) |
| | EN 301 489-24 V1.4.1 (09-2007) |
| Irratia | EN 301 511 V9.0.2 (03-2003) |
| | EN 301 908-1 V3.2.1 (05-2007) |
| | EN 301 908-2 V3.2.1 (05-2007) |
| | EN 300 328 V1.7.1 (10-2006) |

Honen bidez deklaratzen da oinarrizko irrati-probak egin direla eta aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE

Direktibaren oinarrizko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan ([IV] eranskinean zehaztuta) aipatutako adostasun-balorazioaren prozeduran, jakinarazitako erakunde hauek hartu dute parte:

BABT, Balfour House,
Churchfield Road,
Walton-on-Thames,
Surrey, KT12 2TD, UK*
Marca de identificación: 0168

CE0168

Dokumentazio teknikoa hemen dago:

Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.

(EBn duen ordezkaria)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK*
2009.08.27 Yong-Sang Park / S. Manager

(igorpen lekua eta data) (pertsona baimenduaren izena eta sinadura)

* Hori ez da Samsung-en zerbitzu-zentro teknikoaren helbidea.

Samsung-en Zerbitzu Zentro Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.

euskaltel

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de Gestión 2008